

IRUN / Eliza ortodoxiari buruzko erakusketa Ikust Alaian, hilaren 13a arte

Ikust Alaia udal liburutegia erlijio eta pazko ortodoxoarekin zerikusia duten elementu ikonografikoak erakutsiko ditu hilaren 13ra arte, Slavinskiy Dom elkarte eslabiarraren lanari esker. Erlijio horretako zenbait ikono, pazkoko arrautzak... eta ospakizun horrekin harremana duten hainbat elementu ezagutzeko aukera izango da.

Munduko bigarren eliza kristaua

Eliza katoliko apostoliko ortodoxoa komunitate kristaua da, munduko bigarren eliza kristau handiena, eliza katoliko apostoliko erromatarraren ondoren. 225 milioi gora eliztar dauzka mundu osoan eta Mediterraneo ekialdeko erdialdeko komunitate kristau guztien oinordekotzat hartzen da.

Zenbait gatazka eta bat ez etortzeak gertatu ondoren, eliza katoliko ortodoxoa eta eliza katoliko erromatarra banandu egin ziren Ekialdeko eta Mendebaldeko Zisma izenekoan, 1064ko uztailaren 16an. Kristautasun ortodoxoa Europa ekialdean zabaldu zen, inperio bizantziarrari eta misiolari-talde ugariren lanari esker.